



Cikak
aurkezten du

Nafarroako sinboloak

Ezagutu Nafarroa
Chipi-Txapa
BILDUMA

Oinarritzko saila

1. Nafarroako sinboloak
2. Nafarroako foruak eta instituzioak (prestaketan)

Sail monografikoa

1. Nafarroako Geografia (multimedia)
2. Nafarroako Foruaren historia eta egungo baliotasuna



Titulua

1. Nafarroako sinboloak


Bildumaren zuzendaritza
Ikasliburuen eta Curriculum Garapenaren Unitate teknikoa.
Hezkuntza Departamentua.
Nafarroako Gobernua
Argitaratzailea
Hezkuntza Departamentua.
Nafarroako Gobernua
Marraskiak
Asís Bastida
Moldiztegia
Espace Graphie
L.G. NA - 660/2004
I.S.B.N. 84-235-2505-8

Chipi-Txapa bildumak lagun egin nahi die Nafarroako eskola umeei Nafarroa hobeki ezagutzen. Hartarako oso pertsonaia berezia izanen du bidelagun: **Cika**. Neskatico honek lagunduko die Nafarroako eskola umeei eginkizun horretan eta beren lurraren historian, lege zaharretan eta Nafarroa hain bere gisako egiten duten hizkuntza, kultura eta ohituren aniztasunean interes hartzera bultzatuko.

Luis Campoy Zueco
Hezkuntza kontseilaria



Nafarroako sinboloak



Nafarroako sinboloak

Nafarroa ezagutarazten duten sinboloak hiru dira: *armarria*, *bandera* eta *himnoa*.



armarria

Nafarroako armarrian, fondo gorriaren gainean, urrezko katebegiz osatutako katea ageri da. Katebegiek armarriaren erdiko esmeralda batean bat egiten dute. Errege koroa batek hartzen du goialdea.

Armarri honek Antso Azkarra Nafarroako erregeak Navas de Tolosako batailan (1212) garaile atera ondoren erabili izan zuena hartzen du oinarri. Elezaharrak dio (baina badirudi ez dela egia historikoa), kate horiek Miramamolín delako musulman buruzagiaren denda babesten zutenak direla, Antsok bataila hartan garaitu zuenean, eta esmeralda ere buruzagi haren turbanteko gerra trofeoa omen da.

bandera

Nafarroako bandera gorria da eta barrenean armarria dauka. Ofizialki 1912an erabili zen lehenbiziko aldiz, bataila ospetsu haren zazpigarren mendeurrena ospatzearekin batera.

Antso Azkarraren armarriak 800 urte iraun du, gaur duen forma hartu arte bilakatuz.



Miramamolín esmeralda, Orreagako Kolegiataren museoan gordetzen dena.



Antso Azkarrak Navas de Tolosako batailatik (1212) harrapakintzat ekarri zituen kateak, gaur egun Nafarroako Diputazioaren Jauregian gordetzen direnak.

himnoa

Gaur Nafarroako Himnoa edo Gorteetako Himnoa deritzanaren musikak, aro barrokoko Erresumaren sarrerako martxa delakoan du jatorria. Martxa hori jotzen zen errege-nobleak eta Gorteetako ordezkariak Atari Preziosotik sartzen zirenean Iruñeko katedralaren klaustroa, han izaten baitziren gorteen bilkurak.

Nafarroako gorteen azken bilkura 1829. urtean izan zen, baina himnoa, hala ere, zeremonia ofizial guztietan jotzen zen aurrera ere.

Beste armarri historiko batzuk



Antso Azkarraren gerra-maza astunak.

Gerragizonek aspalditik erabili zituzten ezkutuak beren gorputza babesteko. Zaldunek, bakoitzaren ezaugarritzat, sinbolo edo ikur batzuk marrazten zituzten ezkutuen gainean.

Historian barrena Nafarroako erregeek beste motibo heraldiko batzuk ere erabili zituzten, nahiz hauek eskuarki erregearen leinua ezagutarazten zuten, ez erresuma. Konparazio batera:

Eneko Aristak (?-851) galbizar irazekiak (erdaraz *aristas*) ageri dituen alor bat erabili zuen armarritako, bere goitzenaren (*Arista*) agergarri.

Antso Abarkak (970-994) bi abarka urrezko erantsi zizkion lehengo armariari, haiek ere bere goitzenaren ikur. Izan ere, errege honi *Abarka* esaten zioten abarkak erabili zituelako Iruña mairuen setiopetik libratzeko Pirinioa gainditu zuen batean.

Antso Azkarrak (1194-1234) Arrano baten irudia erabili zuen zigilutako bere dokumentu pertsonaletan. Ikur edo sinbolo hau, agi danez, bere amatxi Margarita de l'Aigle izenetik zetorkion (frantsesez *Aigle* "arrano" baita).

Orregako kolegiataren kapitulu-gela. Antso Azkarraren hilobia dauka erdian eta Navas de Tolosako batailaren VII. mendeurrena ospatzeko eginndako beiratea.

Kapitulu-gela apaintzen duten armarrietako bat.




heraldika

Nafarroako beste armarrri batzuk

herriak


Nafarroan armarrriak erabiltzeko tradizio handia dago, sinbologiaz betea: hor daude zaldun-familien armarrriak, herri eta hirienak eta hainbat kirol edo kultura erakunderenak.



Osagai sinbolikoak asko errepikatzen dira armarrrietan, Sinbolo horiek, hasieran, zaldunak bereizteko balio zuten, baina ondoren zaldun horien dohainak irudikatzeko hasi ziren erabiltzen, konparazio batera:

- **Kolore gorria:** Adorea, kemena, ohorea, garaita eta abar.
- **Urre kolorea:** Nobletasuna, distira, aberastasuna eta abar.
- **Arranoa:** Heroitasuna. Erresuma ikurra da.
- **Lehoia:** Agintea, burupea, ausartzia eta abar.
- **Lertxuna:** Zuhurtasuna.
- **Zakurra:** Erregeaganako leialtasuna.
- **Gaztelua:** Leinu baten lurralde jabetza.
- **Ezpata:** Justizia.
- **Koroa:** Jabetasuna eta jauntasuna.
- **Izarra:** Zoriona eta zuhurtasuna.
- **Dorrea:** Eskuzabaltasuna.
- **Haitzak:** Egonkortasuna eta sendotasuna.

Osagai sinboliko hauetako batzuk Nafarroako armarrrietan ere agertzen dira.



Nafarroako armarrriak Espainiako armarrriaren laugarren laurdena hartzen du.

Armarria euskarri desberdinetan erabiltzeko bateratu beharrak Nafarroako Gobernua grafikoki ezagutarazteko sinbolo finko bakarra eratzeraz eraman zuen 1985ean.

erakundeak

Armarrietako osagaiak eta sinbologia Nafarroako hainbat sinbolo eta enblemetan ageri dira behin eta berriz



Iruña



Osasuna



Nafarroako Unibertsitate Publikoa

erronkari



zangoza



tafalla



agoitz



altsasu



tutera



erriberri



baztan



lizarra



cika



Irakaslearen laguntzarekin, kanta edo jo ezazu flautarekin Nafarroako himnoa.

Soprano Meestoon — 8m Approx Arr. V. Ruiz López

Por Na - va - rra,
Na - fa - rro - a,

tie - rra bra - vay no - ble, siem - pre fiel, que tie - ne por bla -
lur haun - di taaz - kar, be - ti le - ial, zu re os - pe - a

són la vie - ja ley tra - di - cio - nal. Por Na - va - rra,
da an - tzi - na - ko le - ge zaha - rra. Na - fa - rro - a,

pue - blo deal - ma li - bre, pro - cla - me - mos! jun - tos nues - tro a - fán u
zon as - ka - tu - en sor - le - ku - a, zu - ri - na - hi di - zu - gu

1ª 2ª

ni - ver - sal ni - ver - sal. En cor - dial u - nión
gaur kan - ta gaur kan - ta. Gai - ten de - noak bat,

con - le - algo te - són, tra - ba - je - mos
de - nok go - go bat, bein be - ti - ko

yher - ma - na - dos to - dos lo - gra - re - mos hon - ra,
i - rit - si de - za - gun a - in - tza, ba - ke e - ta

1ª 2ª

a - mor y paz a - mor y paz.
mai - ta - su - na mai - ta - su - na.

Erdarazko hitzak: Manuel Iribarren
Euskarazko hitzak: Jose Maria Azpiroz

FOTOKOPIATZECO
MATERIAŁA

*Aurki ezazu letra laberinto honek zer mezu ematen duen.
Eraman ezazu Cika bere armarriraino bide egoki batetik.*

FOTOKOPIATZEKO
MATERIALA

Aurki itzazu zortzi hitz ezkutatuak
Oroit zaitez letrak bertikalki, horizontalki, diagonalean
eta edozein norabidetan irakur daitezkeela.



Antso Azkarra beste zibilizazio bateko pertsonaien artean galduta dago. Aurki ezazu.



HIZTEGIA

Abarka. Larruzko oinetako tradizionalak. Oin zola besterik ez dute estaltzen eta soka edo hede batez lotzen dira oin bizkarraren eta orkatilaren inguruan. Orain gomazkoak ere izaten dira.

Armarria. Marko baten barreneko irudia edo irudiak, estatu, herri, korporazio, familia edo bestelako gizatalde bat ezagutarazten dutenak. Jatorriz irudi horiek defentsarako ezkutuen altzairu xaflaren gainean pintatzen ziren.

Arista. Erdara zaharrean, galburuak izaten dituen bizarrak.

Bandera. Oihal zati koloreduna, makila bati lotua, gizatalde, elkarte, herri eta antzekoen sinbolo edo ikur dena.

Mendeurrena. Gertaera batetik ehun urte iragan direnean egiten den ospakizuna.

Koartela. Heraldikan hala esaten zaio armarri batek dituen parteetako bakoitzari.

Zigilua. Agirietan sinaduraren balioarekin pertsona batek bere burua ezagutarazteko jartzen zuen marka.

Katenbegi. Erastun itxurako metal piezak, bat besteri lotura katea osatzen dutenak.

Esmeralda. Berde koloreko harri bitxia.

Galburua. Gariak zurtenaren muturrean duen zabalgunea, bikorrak barrenean dauzkana.

Heraldika. Armarriak ikertzen dituen zientzia.

Himno. Hots handiko pieza, poetikoa nahiz musikala, ohiz kanpoko pertsonaia, gertaera ego gauzen gorazarrez eginga


Goitizena. Pertsona baten izenari gaineratzen zaion izen kalifikatzailea

Tradizioa. Elezahar, historia eta jakingai multzoa, ahoz aho ikasten dena gizaldiz gizaldi. Eskuarki egiaztat hartzen da, nahiz eta batzuetan benetako oinarri historikoa falta duen.

Trofeoa. Bataila baten garaileak etsaiari kentzen dion objektua, bere garaipenaren agergarria.

Turbantea. Musulmanek buruaren inguruan kiribildurik eramaten duten oihal zerrenda.

IZEN ETA GERTAERA HISTORIKOAK



Navas de Tolosako bataila (1212)

Errekonkistako bataila handia.

Gaurko Jaén probintzian izan zen. Kristauen aldetik

Nafarroako Antso

Azkarrak, Gaztelako

Alfontso VIII.ak eta

Aragoiko Pedro II.ak

hartu zuten parte bertan

Miramamolin delako buruzagi

musulmanaren kontra. Miramamolin erabat

azpiratu zuten. Kristauen garaipen honen

ondotik agudo hasi zen arabeen gainbehera

Penintsularen hegoaldean.

Errekonkista. Kristau erregeek arabeak Iberiar

Penintsulatik lekutu zituzten garaia deritza

horrela. Covadongako batailatik hasi (722)

Granada hartu arte (1492) irauten du.

Eneko Arista (?-851). Tradizioak dioenez,

Nafarroako lehenbiziko erregea.

Antso Abarka (970-994). Iruñeko erresuma

musulmanen sarraldietatik defendatu zuen.

Antso VII.a Azkarra. Iruñeko erregea, garai

hartako errege sonatuenetakoa. Oso gorputz

handikoa izateagatik eman zioten goitizena.

Bi metro inguru luze omen zen. Orreagako

monasterioan ehortzi zuten, eta bere hilobiko

estatua monumentala bere benetako

irazkiaren betekoa omen da.

Monasterio horretako museoan gerra-maza

gaitz batzuk ere altxaturik daude. Antso

Azkarrak Navas de Tolosako batailan erabili

zituenak omen dira.

